

1.Praktika: ASEGURUAK EGUNEROKOTASUNEAN

Praktika honekin hasteko, galdera bat planteatuko dugu: Zein aseguru dituzu kontrataturik?

Ziurrenik pentsa zenezake ez daukazula aseguruarik kontrataturik edo baten bat bakarrik izan zenezakeela. Hala ere, gaur egun aseguru askok inguratzen gaituzte gure egunerokotasunean. Adibide bat jartzearren, garraio publikoan bidaiatzerakoan, gure bidai txartelak aseguru bat dauka barneraturik. Txartelean “B.D.A. barneraturik” dagoela jarri ohi du. Sigla hauek Bidaiariaren Derrigorrezko Aseguruari egiten diote erreferentzia. Aseguru honen helburura garraio kolektibo publikoetan, lekualdatze bat gertatzen denean gerta daitezkeen istripuek eragin ditzaketen kalteen aurka bidaiaria babestea da.

Beste adibide bat derrigorrezko eskola aseguruan aurkitzen dugu. Aseguru hau ikasketa batzuk egiteko matrikula ordaintzen den momentuan harpidetzen da, eta ikasleak jasan ditzakeen istripuez, edo bere familian gertatutako zoritzarreko egoeren aurrean babesa emango dio.

Hauek adibide batzuk baino ez dira, baina inguratzen gaituen munduan hainbat aseguru aurki genitzake. Praktika honen helburua egunerokotasunean aurkitzen ditugun aseguru buruzko adibideak bilatzea da. Horretarako, komunikabideetara jo dezakegu, eta bertatik aseguru inguruko albisteak aurkitu.

Albisteak aurkitzeaz gain, bertan aipatzen diren aseguruak teorian ikusitako zenbait irizpideren arabera sailka ditzakegu: aseguru pribatuak badira, edo gizarte aseguruak, aseguru derrigorrezkotasunaren arabera, etab.

EGIN BEHARREKOA:

- Gure egunerokotasunean aurkitzen ditugun aseguru buruzko informazioa bilatzea komunikabideetan, eta aseguru hauek zein arrisku estaltzen dituzten zehaztea.
- Aurkitutako aseguru desberdinak sailkatzea teorian ikusitako irizpideak jarraituz.

PRAKTIKAKO AUTOEBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK:

Egunerokotasunean hainbat aseguru desberdin aurki daitezke. Praktika honetan adibide batzuk aurkitzea eskatu da, zein arrisku estaltzen dituzten zehaztuz eta teorian ikusitako irizpideen arabera sailkatuz. Adibide moduan erantzun batzuk adierazten dira:

- Bidaiarien Derrigorrezko Asegurua: garraio bide kolektibo publikoetan, lekualdatze bat gertatzen denean, gerta daitezkeen istripuek eragin ditzaketen kalteen aurka babesten ditu bidaiariak. Sailkapena: Derrigorrezko izaera duen aseguru pribatua da.
- Eskola Asegurua: ikasleek jasan ditzaketen istripuez, edo haien familian gertatutako zoritzarreko egoeren aurrean babesa ematen du. Sailkapena: Derrigorrezko izaera duen gizarte aseguru da.
- Ibilgailuen Derrigorrezko Asegurua: gidariak hirugarrenen aurrean izan dezaken erantzukizun zibila estaltzen du, baina ez kotxeak edo gidariak berak jasan ditzaketen kalte pertsonal edo materialak. Sailkapena: Derrigorrezko izaera duen aseguru pribatu bat da. Aseguru hau normalean borondatezko beste estaldura batzuekin batera komertzializatzen da.